

## **2007-02-14ko EZOHIKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko otsailaren hamalauan, arratsaldeko 20:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiz kanpoko batzarra egin du Udalbatzak Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: M. Jesus Otaño Zumeta, Agustin Zubeldia Iraola eta Eugenio Loidi Garmendia.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute, José Luis Olano Zubeldia.

Ez dira etorri eta ez dute adierazi ezin etorria: Aitor Lasa Olalde eta Gregorio Lasa Etxezarretak.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgiak, egin ditu idazkari- lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

#### **DEIALDIAREN PRESAZKO IZAERA BERRONESTEA.**

Udalbatzak erabaki du aho batez deialdiaren presazko izaera onartzea, korporazioko partaideen zilegizko gehiengo osoa osatzen dutenen aldeko botoarekin.

### **BIGARREN GAIA**

#### **AURREKO AKTAK ONARTZEA (06-12-28).**

2006ko abenduaren 28ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, 13. eta 14. gaien transkripzioari buruzko ez adostasuna erakusten dute. Batetik, Hitzak egindako dirulaguntza eskaerari erantzunez, udalbatzaren erabakia 2.300€ orain ematea izan zen eta gainontzekoa (3.339€-raino), 2007ko aurrekontuak adostu ondoren.

Bestetik, Galtzaundik egindako dirulaguntza eskaerari dagokionez, 1.700€ orain ematea adostu zen, eta gainontzekoa (2.577€-raino) 2007ko aurrekontuak onartu ondoren.

Honenbestez, eta udalbatza osatzen duten guztien aldeko botoaz, Udalbatzak aktari dagokion aldaketak egitea erabaki du aho batez, bai eta interesdunei zuzenketa honen berri ematea.

Gainontzekoari dagokionean, Udalbatzak bere aho bateko adostasuna adierazi du.

### **HIRUGARREN GAIA**

#### **ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

-2006-12-15eko 164/06 Dekretua: Alkatearen abstentzio eta eskuordetza Jesus Angel Ugaldek jabetza horizontaleko erregimenaren konfiguraziorako baimen eskaeraren prozeduran.

-2006-12-18ko 165/06 Dekretua: Jesus Angel Ugaldek egindako jabetza horizontaleko erregimenaren konfiguraziorako baimena ematea.

-2006-12-19ko 166/06 Dekretua: Julia Garcia Mansok aurkeztutako erreklamazioa onartuz eta euskara ikastaroko dirulaguntzaren bigarren %50a emanez.

-2006-12-19ko 167/06 Dekretua: 139 – EK espedientearen gizarte larrialdiko laguntza onartuz.

-2006-12-26ko 168/06 Dekretua: Itsaso Otxoteko Agirrerri EEL zerbitzua ezartzea

- 2007-01-05eko 1/07 Dekretua: Azaroari dagozkion fakturak onartzea, 46.314,21€, bai eta bi zertifikazio 39.827,16€ eta 19.070,99€takoak, kiroldegiko eta haurtzaindegiko obrei dagozkienak urrenez urren.
- 2007-01-17ko 2/07 Dekretua: Abenduari dagozkion fakturak onartzea, 27.169,89€, eta haurtzaindegiko obrako bigarren zertifikazioa, 3.055,59€takoak.
- 2007-01-18ko 3/07 Dekretua: mediku kontsultategi berriko obrari dagokion bigarren zertifikazioa, 40.687,24€, onartzea.
- 2007-01-23ko 4/07 Dekretua: ordainsarien %4ko igoera onartzea.
- 2007-01-26ko 5/07 Dekretua: Marimi Ugalde Zabalari sukalde eta bainua konpontzeko baimena ematea.
- 2007-01-26ko 6/07 Dekretua: Maria Jesus Otaño Zumetari dendako biltegiko atea ixteko baimena ematea..
- 2007-01-26ko 7/07 Dekretua: Joxean Artolari iturgintza denda handitu eta aire egokitua jartzeko baimena ematea.
- 2007-01-26ko 8/07 Dekretua: Jose Luis Olano Zubeldiari ibilgailuak espaloitik sartzeko baimena ematea.
- 2007-01-30eko 9/07 Dekretua: Jose Ignacio Balerdiri leihoak aldatzeko baimena ematea..
- 2007-01-30eko 10/07 Dekretua: eskola erabilpenetarako pabilioia alokatu, ekarri eta muntatzeagatik Algekok igorritako faktura onartzea.
- 2007-02-05eko 11/07 Dekretua: Naturgas enpresari 268,41€-ko tasa likidatzea erabilpen pribatiboagatik.
- 2007-02-06ko 12/07 Dekretua: Jesus Arruabarrena Gonzalezen aurkako espediente zehatzailea hastea, animaliak izateko eta babesteko ordenantza urratzeagatik.
- 2007-02-06ko 13/07 Dekretua: Francisco Javier Martinezen aurkako espediente zehatzailea hastea, animaliak izateko eta babesteko ordenantza urratzeagatik.

#### **LAUGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO EKINTZA PLANA.**

Udalbatzak aho batez erabaki du, Udaltalde 21ekin batera diseinatutako Irurako iraunkortasunaren aldeko ekintza plana onartu eta aurrera eramatea ahal den era apropos eta egokienean.

#### **BOSGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO ARAU SUBSIDIARIOEI BURUZKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA**

Udalbatzak aho batez erabaki du Irurako Arau Subsidiarioen egitasmoari interesdun ezberdinek egindako ekarpenei eman zaien erantzuna.

#### **SEIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO PLANGINTZARAKO ARAU SUBSIDIARIOAK BEHIN BEHINEKO IZAERAZ.**

Udalbatzak aho batez erabaki du Irurako Plangintzarako Arau Subsidiarioak behin behineko izaeraz onartzea eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidali bere izapidearekin jarraitu eta behin betiko onarpena lortzeko.

### **ZAZPIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, OBRETARAKO UDAL LIZENTZIAREN ESKAERA, ORIA BUGATI, S.L..**

Udalbatzak aho batez erabaki du Oria Bugati, S.L.-ek, Kale Nagusia 38 zenbakian (Zorrobiaga etxea), 6 etxebizitzako eraikin bat jasotzeko lizentzia eskaera onartzea. Dagokion zerga eta tasak ordaintzeaz gain, arauen arabera ziurtasun neurri oro hartu eta bete egin beharko ditu.

### **ZORTZIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, LOATZO MUSIKA ESKOLARI DAGOKION EKARPENA.**

Udalbatzak aho batez erabaki du, Loatzo Udalerrien Mankomunitateko batzorde eragileak onartutako aurrekontu orokorraren arabera ekarpena egitea.

Ekarpenaren zenbatekoa 40.187,30€-takoa da eta bi epetan egingo da, lehenbizi %50a ordainduko delarik, hau da, 20.093,65€, eta martxoaren 15aren aurretik.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:35ean eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nazuen honek EGIAZTATZEN dut.